



Helduen literatura | ITZULPENA

*Venusen delta*  
Anaïs Nin

Itzultzailea: Garazi Arrula.  
Txalaparta, 2013

## Venusen istorioak

ANAÏS NIN ezaguna da bere bizitza biltzen duten *Journals* (1931-1971) izeneko idazlanengatik. Gaurkoan ez ditugu mintzagai izango, baina noizbait ere irakurtzea gomendatzen dizuet. Nin idazlea zen, bai, baina edozeren gainetik emakumetzat zuen bere burua, eta bi kontzeptu horien batasunean oinarrituz jorratu zuen bere ibilbide literarioa.

Eskuartean duzun *Venusen Delta*, aberats anonimo baten enkarguz atalka idatzitako narrazio erotikoen bilduma da, 70eko hamarkada arte liburu gisa agertuko ez zena. Diru premia zela eta, Henry Millerrekin elkarlanean ekin zion aberats horren beharrak asetzeari. Agurearen baldintza argia zen: “sexu esplizitua” deskribatzen zituzten narrazioak idaztea, orrialde bakoitza dolar baten truke. Hasieran lortu bazuten ere, Nin ezin izan zen luzez pornografia hutsa idaztera mugatu eta, ahots propio bat garatzen hasia zuela konturatuta, sexu-jardun mekanikoa deskribatetik urrunago joan zen. Berak uste zuenez, Pandoraren kutzak sentsualitate feminoaren misterioa gordetzen du, paralelismo ezin hobea, hain zuzen ere, *Venusen Delta* deskribatzeko. Izenburuan ageri den hitz jokoak, sexuaz mintzatzeko joera misterioitsu eta sentsual horri erreferentzia egiten dio eta, bide batez, bada emakumearen sexu-organoa aipatzeko modu ederragorik?

*Venusen Delta* sexu harremani buruz idazten duen literatura dela esan daiteke. Hamabost narrazioetan barrena, sexu harreman infinituei buruzko istorioak aurkitzen ditugu: homosexualak, nekrofilikoak, lesbikoak, intzestu bidezkoak, eta guztiak inongo aurreiritzi eta taburik erakusten ez duen hirugarren pertsona neutro batean kontatuak dira, nahiz eta, kasu gehienetan, emakumearen ikuspegi-tik jorratuak izan.

Plazera, hemen ulertzen den bezala, ez da gorputzen arteko kontaktuaz bereganatzen den zer soil bat. Istorio bakoitzak badu sexu gosearen pizgarri gisa aritzen den elementu afrosiako propioa; malkoak, barreak, beldurrak, ametsak, fantasiak, aurpegi ezezagunak, promesak, jelsia, etab. Irudimenezko eta emoziozko lengoaiari lotutako osagaiak dira, hain zuzen ere, sexu-jardunaren eszena bakoitzari bere eduki magikoa, ehundura berezia, gaineratzen diotenak. Beste modutan ezin genezake literaturaz mintzatzaren aritu, eta film porno soil bat ikustearekin nahikoa izango litzateke.

Ongietorria ematen dizut, irakurle, irudimenezko plazer ezustekoenera. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



Pamiela argitaletxeak,  
Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

# JUAN ZELAIA

## XIII. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gai buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

**Saria: 9.000 € · Bidaltzeko epea: irailaren 30a arte**

**Lanak bidaltzeko:** Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria),  
Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea - 31013 Iruñea  
☎ 948 326 535 · soltxate@pamiela.com · Arauak: [www.pamiela.com](http://www.pamiela.com)



2013